



## Bi hildako Elorri eta Tagore egoitzetan

Arabako egoitzetan, covid-19aren ondoriozko beste 10 positibo gehiago dago

**Gasteiz, 2020ko irailaren 14a.** Azken egunotan adinekoentzako egoitza pribatuetan zeuden eta koronabirusa zuten bi erabiltzaile hil dira. Hildakoetako bat Elorri egoitzan zegoen, baina heriotzaren kausa ez dira izan Covid-19ak zuzenean eragindako osasun arazoak, erabiltzailearen osasun egoerak oro har nabarmen okerrera egin izana baizik. Bestalde, ospitalean zela hil da Tagore egoitzako erabiltzaile bat.

Arabako egoitzetan covid-19 positibo kasuak detektatzeko azterketetan beste 10 kasu atzeman dira egoitzetako erabiltzaileen artean.

Horietako zortzi Colisée Miñano egoitza pribatuan detektatu dira, PCR proba gehiago egin ondoren; beraz, zentro horretan bizi diren 14 pertsona dira koronabirusa dutenak. Gehienak sintomarik gabekoak dira, eta guztiak isolatuta daude beren gelan.

Era berean, beste kasu positibo bat izan da Albertia Centro egoitza pribatuan, lehendik zentro horretan atzeman zen beste positiboaz gain. Beste kasu bat erregistratu da Tagore egoitza pribatuan, eta guztira 12 dira positiboak.